

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako eta Espainiako gobernuek menpekotasuna prebenitzeari buruzko ikerkuntza-proiektu bat abian jartzeko erabakia hartu dute

*Erabakia Torres kontseilariak eta Pajín ministroak hartu dute*

Martes, 06 de septiembre de 2011

Nafarroa eta Espainiako gobernuek ikerkuntza aplikatuko proiektu pilotu bat abian jartzeko erabakia hartu dute autonomia pertsonala sustatzeko eta Foru Erkidegoan menpekotasuna prebenitzeko.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilari Elena Torresek Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko ministro Leire Pajín-i planteatutako ekimenak Gobernu Zentralaren babesa jaso du. Gobernu Zentralak, ekimena abian jartzeko, konpromisoa hartu du elkarrekin lan egiteko eta ondoren beste autonomia erkidego batzuetara zabaltzeko.

Proiektua Foru Gobernuaren mende dagoen Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroan garatuko zen; hark, jada, programa zehatzak ditu, adin nagusikoen osasuna zaintzeko, umeen obesitatearentzat, bularreko minbiziarentzat, eta bihotzekoren bat izan duten pertsonen arreta eskaintzeko.

Autonomia pertsonala sustatzeko eta menpekotasuna prebenitzeko proposatu den programa berri horren xedea, pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, prebentzio-arloan eta autonomiaren sustapenean jardutea eta, hortaz, kostu soziosanitarioak aurrezte.

2011ko uztailaren 31n, 14.173 pertsona menpekotasuneko zerbitzuaz baliatzen zen Nafarroan. "Foru Erkidegoak –kontseilariak gogora ekarri duenez- estatuko legeak adierazten duena baino arreta-maila handiagoak ditu".

Bestalde, Torresek "oso positibotzat" jo du ministroaren izandako bilera, eta elkarrekin lan egiteko nahia helarazi dio; interes hori, gainera, "partekatua dela badakit"; "izan ere, administrazioen artean lan eginez errazagoa da pertsonen alde eta beren bizi-kalitatearen alde jardutea".



Pajín ministroak Torres kontseilariarekin eta Javier Monzónekin egindako bilera.

Datozen egunotan, bi administrazioek proiektua gauza dadin lan egingo dute.